

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

3754

AGINDUA, 2024ko uztailaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetan hautatutako pertsonen zerrenda osagarria, irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez egin zen deialdia), eta, bestetik, uko egiteagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galtzen dituzten pertsona hautatuen zerrenda.

Bat etorrita Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 11.6 oinarrian ezarritakoarekin (zeinaren bidez hautaketa-prozesuetarako zenbait deialdi egin baitziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere), eta bat etorrita, halaber, aipatutako hautaketa-prozesu horietan hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak argitara ematen dituen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 11ko Aginduaren zazpigarren oinarrian ezarritakoarekin, ordezkotako hautatuen zerrenda osagarri bat egin da. Zerrenda hori erabiliko da, aurrez hautatutako izangaiek izaera hori galdu dutelako 2024ko uztailaren 19ra arte aurkeztutako eta onartutako hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egiteagatik.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 11.6 oinarrian eta Hezkuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 11ko Aginduaren zazpigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea ordezkotako zerrendan ageri den puntuazio-ordenaren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako ohiko lehiaketa-oposizio bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuari dagokionez:

Kidegoa: Maisu-maistrak.

Espezialitatea: Lehen Hezkuntza.

NAN	Abizenak eta izena	HE	Guztira
***5217**	Urkiaga Mugarra, Itsasne	2HE	6,4729

Bigarrena.– Argitaratzea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako ohiko lehiaketa-oposizio bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egin dieten pertsona hautatuen zerrenda:

Kidegoa: Maisu-maistrak.

Espezialitatea: Lehen Hezkuntza.

NAN	Abizenak eta izena
***5717**	Posada Arreche, Idoia

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide honetan argitaratzea:

<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko eta ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Berriak».

Laugarrena.– Hogei egun naturaleko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honen lehenengo ebazpen-zatian aipatzen den izangai hautatuak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 12.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzan.

Dokumentazioa online aurkeztuko da, <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – Tramitagune – «Administrazio-espeditentak: eskabideak, erreklamazio formalak, errekursoak» – Gainerako izapideak.

Agindu honen eranskinean, zinpeko aitorenaren eredia argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiriak aurkeztea» eredia ere, zeina bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko baita.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu edo azterketatik ondorioztatzen bada deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hargatik eragotzi gabe hasierako eskaera faltsutzeagatik izan lezakeen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko ditu, azterketa medikoan ez-gai gisa kalifikatzen bada.

Bosgarrena.– Agindu honen aurka, berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 22a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA

HAUTATUEK AGIRIAK AURKEZTEA

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Especialitatea:		
Hautatua izan naiz Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan; hori dela-eta, honako agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 12. oinarria):		
AURKEZTUKO DUZUN/DITUZUN DOKUMENTUARE/EN ZERRENDA (Markatu entregatuko dituzunak)		
<input type="checkbox"/> Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria (*)		
<input type="checkbox"/> Nortasun Agiri Nazionala, edo, atzerritarra bazara, 12.1.a) oinarriaren arabera bestelako dokumenturen bat (*)		
<input type="checkbox"/> Zinpeko aitortpena edo hitzematea		
<input type="checkbox"/> Desgaitasun txanda: Organo eskudunen ziurtagiria, izaera hori aitortzekoa (% 33ko desgaitasuna)		
<input type="checkbox"/> Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita zaudela egiaztatzen duen titulua edo esperientzia		
<input type="checkbox"/> PPD Masterren ziurtagiri edo titulua		
<input type="checkbox"/> Titulu baliokideak		
<input type="checkbox"/> Irakasle esperientzia		
<input type="checkbox"/> Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortua izan ez zarela adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina (*)		
<input type="checkbox"/> Hizkuntza-eskakizunaren tituluak edo ziurtagiriak, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez badaude		
<input type="checkbox"/> Gaztelaniaren ezagutzaren ziurtagiria (Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizial gisa espainiera ez duten pertsonen kasuan)		
<input type="checkbox"/> Salbuespeneko kasuan praktikak atzeratzea eskatuz gero, horren justifikazio-agiria		
(*) DOKUMENTUA EZ BADUZU ENTREGATUKO eta kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA		
Oharrak:		
egiaztatetik aldi baterako salbuetsita bazaude (2.1.f oinarria), atal honetan adierazi.		
Data, tokia	Izenpetua	

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT. HEZKUNTZA SAILA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA
ZINPEKO AITORPENA

Nik.....

NAN zk.:.....

ZIN EGITEN DUT edo HITZEMATEN DUT inongo administrazio publikotik ez nautela zigor-espeditente baten ondorioz egotzi, ez nagoela funtzio publikoetan aritzeko ezgaituta eta ez nagoela Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako desgaitasun eta bataerazintasunen legezko inolako kausatan sartuta.

....., 2024ko.....aren(a)

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....

NAN zk.....

ZIN EGITEN DUT edo HITZEMATEN DUT ez dudala(e)n (Estatuaren izena) funtzio publikora sartzea eragozten duen diziplina- edo espetxe-zigorrik.

....., 2024ko.....aren(a)

Izpta.: